

21ean, Almerian.
k Abel Paz bihurtu
zenetako bat egin
igaro duen arren,
du.

Historialari eta historia egile

Anarkismoaren ideiak hedatzen eta gauzatzen eman du bizia Abel Pazek. Hain zuzen ere, Espainiako gerrari eta garai hartako iraultza sozialari buruzko artikulua eta saiakerak asko idatzi ditu. Besteak beste, Buenaventura Durruti buruzagi anarkistari buruz idatzi den biografia osoenetako bat berea da: *Durruti en la Revolución española* (Durruti iraultza espainiarrean) —Anselmo Lorenzo Fundazioak gaztelaniaz berrargitaratu zuen, 1996an—. Lan hori, zehazki, zortzi hizkuntzataraz itzulia da; besteak beste, japonierara. Orain, aurreneko aldiz, 1984an plazaratutako *Cronica de la Columna de Hierro* (Burdinazko Zutabearen kronika) berrargitaratu du Bartzelonako Virus argitaletxeak, eta hori aitzakia hartuta ibili da Euskal Herrian hitzaldiak ematen. Halaber, bere autobiografia ere idatzia du eta lau liburukitan argitaratu zuten.

Izan ere, Abel Paz ez da anarkismoaren historialari oparo eta zorrotzenetako bat bakarrik; historia egile izan da gainera, gero liburuetan jaso duen historia horretxek egile eta protagonistetako bat.

1921an, Almerian jaio zen; Diego Camacho zuen izena orduan, Abel Paz erbesteak eta ihes egin beharrak emandako izena baita. Jornalekoak zituen gurasoak. Artean 8 urteko mutikoa zela Bartzelonara joan ziren bizitzera, eta, ikusten denez, aita-amek bazuten anarkismoarekin eta ezkerreko mugimenduekin zerikusia, El Clot auzoko Natura eskola arrazionalistara bidali baitzuten. Han koskortu zen; besteak beste, Ateneo Libertarioko liburutegian hartutako liburuak irakurri.

Dena den, garai hartako gehientsuenei bezala, laster etorri zitzaion gizondu beharra: 14 urterekin hasi zen lanean, jantzigintzako lantegi batean, eta horrekin batera, CNT sindikatu anarkistara eta Juventudes Libertarias erakundera afiliatu zen. 1935ean jazo zen hori, eta 1936an, Francoren altxamendua gertatu zenean, garaiko mugimendu iraultzailean murgildu zen buru-belarri. Gertutik ezagutu zuen milizen jarduna, CNT barruko eztabaidak, komunistekin izandako gorabeherak. Besteak beste, 1937ko maiatzeko greban borrokatu zen, eta ordutik, jarrera kritiko bat dauka mugimendu libertarioaren barruan.

Bartzelonako El Clot auzoko Natura eskola arrazionalistan ikasi zuen Abel Pazek, 14 urterekin lanean hasi arte

Azkenean, 1939an, nazionalen garaipenarekin batera, Frantziara alde egin zuen, eta han errefuxiatuen eremuetan ibili zen. Handik ihes egin, eta Espainiako diktaduraren kontra borrokatzen zen gerrilla libertarioan sartu zen 1942an. Espetxea etorri zen gero: 11 urte, eta erbeste luzea berriro. Orain, Bartzelonan bizi da, justu-justu etxebizitzaren alokairua ordaintzeko ematen dion pentsio batekin.

Hala ere, aberatsa da, lagunei esker-eta beti lortu baitu bere liburuak bere erara argitaratu ahal izateko dirua —gainerakoan, handiak izan baititu argitaletxeek jarritako oztopo eta eragozpenak—. Aberatsa da, halaber, bizitzak hainbat jende eta gertaera ezagutzeko aukera eman diolako —besteak beste, Eusko Jaurilaritzako Irujo eta Leizaola eza-gutut zituen erbestean, eta azken horrekin filmatutako elkarrizketa argitaragabe bat dauka gordeta—. Era berean, aberatsa da, oraindik ere sasoia eta esperantza duelako: joan den abenduan, Hego Korean eta Japonian izan zen, hitzaldi batzuk eman eta anarkismoaren ideiak zabaltzen.

«Orain ere betiko jendea dago agintean»

1931n lau mende zeramatzala Espainiak monarkia absolutuaren mende, nekazari-tzaren erreformarik ez zela egin —gaur egun ere, erreforma hori aurrera eramanez den Europako herrialde bakarra da—, lur jabe handiak nazkagarriak zirela. Pentsa zenbat arrazoi zeuden iraultza egiteko». Il-do horretatik, Pazek garbi dauka gizartearen gero eta gehiago errotzen ari zen iraultza prozesua suntsitu nahi zutela nazionalak. «Eskuina, Eliza, burgesia handia, aristokrazia, militarrek, lur jabeak... denak batu ziren gure aurka. Armak hartu eta miliziak osatzerakoan gure asmoa ez zen Errepublikak defenditzea, errepublika burges horrek berak zigortu eta bidaltzen baiktuen deportatuta Afrikara, baizik eta armen bidez faxisten eskuetatik askatzen genituen eremuetan komunismo libertarioa aldarrikatzea».

Milizien eraketa bera ere eredu horren adibide zen: hierarkiarik gabeko gorputz armatua zen eta erabakiak batzarren bidez hartzen ziren. Dena dela, ametsak ez zuen asko iraun, Francoren Armadak irabazi baitzuen gerra. «Baina, bando nazionalak baino gehiago, kapitalismo ingelesak eta frantseak irabazi zuen gerra; haiei esker eta Italia eta Alemaniari esker irabazi zuten. Denak gure kontra zeuden eta, normalean den bezala, sarraskitu egin gintuzten. Baina ez genuen porrot egin, guk lortu genuen gizarte eredu bat eraikitzea eta gauzagarri zela frogatzea. Porrota izango litzateke saio horretan huts egin izan bagenu, baina ez zen hala izan. Gerra galtzea normala izan zen, sarraski bat», agertu du.

Iragana baino, oraina nahiago

Horra arteko azalpen guztiak purrustaka eman ditu Abel Pazek, zakar, agure egoskortuen moduan. Izan ere, ez du gogoko iraganaz hitz egitea, nekatuta eta nazkatuta ei dago erabat jakinak behar luketen kontuak behin eta berriz azaldu beharraz. «Gogorra dago gero! Franco hil zenetik ia 30 urte igaro dira eta gazte gehienek ez dakizue ezer horri guztiari buruz. Frankismo mentalitatea daukaze oraindik. Horrela ezin da. Berriro ere prozesu iraultzaileari buruz mintzatu behar! Non daude eskola maisuak? Ez al dakizue ia 50.000 liburu idatzitako Espainiako gerrari buruz?», bota digu ozen. Donostiako kafetegi batean ari gara elkarrizketa egiten, eta ondoko mahaiaren berrikerian ari diren emakumeak begira jarri zaizkigu.

«Iragana ez zait interesatzen, oraina baizik. Orainean bizi naiz ni, egungo problemekin. Iragana bakar-bakarrik etorkizuna aldatzeko baliagarri bada interesatzen zait; oroitzen nire hilerri izateko, ez zait batere interesatzen», zehaztu du leunago.

Ulertu dugu mezua, eta orainaldiari hel-

«Boterearentzat hobe da jendeak ahalik eta gutxien jakitea»

du diogu. Jose Maria Aznarren Espainia —hain ondo doan hori— ez du batere gustuko, noski: «Demokrazia eta hori guztia engainu bat da. Gaur egun daukaguna faxismo *light* bat da. Aznarren proposamena Espainia batu, handi eta libre da, garai bateko ator urdindunen proposamen bera, baina beste hizkuntza batekin formulatua; hizkuntza *light* batekin, orain guztia baita arina».

Ezjakintasuna baino ez du ikusten inguruan. «Telebista piztu eta *famosoak* baino ez dira agertzen; arratsaldeko ordu bietan hasi eta gaua arte ez dago besterik, garai bateko faxisten oinordekoak: Albako dukesaren alaba ez dakit zein torerorekin ezkondu dela... Eta niri zer axola zait Carmina Ordoñez norekin dabilen? Eta, gero, futbola. Horren guztiaren atzean dagoena da boterearentzat hobe dela jendeak ahalik eta gutxien jakitea. Ez da batere irakurtzen. Gure garaian ez zen hori gertatzen. Esaten da orduan jendea ezjakinagoa zela, baina ez da egia», adierazi digu errieta txikia eginez. «Betiko jendea dago orain ere agintzen, baina zuen betiko jendea, frankismoa baino ikusi ez duzenona, ez nire betikoa».

Frankismoaren kutsadura

Harro baitago Abel Paz frankismoaren mentalitateak bera ez duelako kutsatu: «Zorionez, espetxera sartu ninduten aurreneko eta erbestera alde egin behar izan nuen gero, eta eragin horretatik salbu geratu nintzen». Eta horrexegatik, sumintzen du hainbeste inguruan ikusten duenak eta bere larruazalean bizi duenak. «Euskal Herriko egoera dela eta, aho bete hortz hitz egiten dute guztiak adierazpen askatasunari buruz, baina ez dago adierazpen askatasunik. Egunkarietara iritzi artikulak bidali eta ez dizkide argitaratzen; argitaletxeetara liburuak eramanez eta atzera botatzen dizkide. Zer egin behar da, gasolina potoa hartuta joan egunkarietara? Zortzi hizkuntzataraz itzulita dago nire obra, baita japonierara ere, baina, hala ere, alferrik. Frantziar jaun baten gisan tratatzen naute, eta Espainiar hutsaren hurrengo. Neuk, neure poltsikoko diruarekin eta lagunaren babesarekin atera behar izan ditut gaztelaniazko edizioak. Kaka zaharra da guztia».

Minduta ageri da, baina ez du etsi oraindik. Gizarte eredu libertarioa behin bizi eta berriro gauzatu nahi du: «Espiritu lasai duela, bizitzeko aukera ematen diolako gizakiari. Ondo bizitzeko behar duguna ez dira ondasunak, espiritua lasai izatea baino. Jakintza eta poesia. Poesia behar da», diosku, oraingoan gozo, bizimodu hori irudikatze hutsarekin batera barrena lasaitu balitzaio bezala.

Eta, etsi ez duenez, esperantza bizi-bizirik gordetzen du barruan. «Globalizazioaren kontrako mugimenduak eta horrelakoen ematen didate ilusioa. Horixe da esperantza bakarra: mugimendu hori guztia bat dadila eta bizitzeko modua alda dezatela. Jendea beldurtu egiten da iraultzarekin, pentsatzen duelako etxea eta autoa kenduko diotela. Iraultzak ez ditu ezer kenduko, behar den bezala banatu baizik. Milioika lagun goseak hiltzen eta horrela ibiltzea ere! Hori da gure askatasuna, Espainiako askatasuna. 80 urte dauzkate, nekatuta nago, baina hil aurretik horixe ikusi nahi dut: hau dena nola aldatzen den».